



Altzariak eta beren etiketak



EUROPAKO
ERKIDEGOEN
BATZORDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

MERKATARITZA, KONTSUMO ET
TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE COMERCIO
CONSUMO Y TURISMO

E TIKETA ZER DEN

ALTZARIAK ITSATSIA EDO LOTUA DARAMAN EDOZEIN IRUDI-
TESTU, MARKA, IRUDI EDO BESTELAKO OSAGAI ZEIN IKUR
DESKRIBATZAILE, GRAFIKO, IDATZI, INPRIMATU, ESTANPATU, LITO-
GRAFIATU, MARKATU, ERLIEBEDUN GRABATU, SAKONGRABATU.

P RINTZIPIO OROKORRAK

■ Kontsumitzailearen eskura jarritako edozein altzarik bere ezaugarri na-
gusiei buruzko informazio zuzena, nahikoa eta egiazkoa eraman behar
du itsatsita nahiz berarekin batera,
edo informazioa lortzeko bestelako
aukera eman benetan. Informazio
horrek etiketan egon behar du.



■ Edozein kasutan, etiketak ezin
izango du engainu edo okerrik
eragin, ez inskripzio, ikur, anagra-
ma edo marrazkien bidez, ezta
datuak ezkutatu edo faltsututa.
Ezin izango du kontsumitzaile-
ari produktuaren benetako
izaeraren inguruan zalantza
sor diezaiokeen adierazpen
edo iradokizunik ere eduki.

■ Produktua erabiltzeak arriskuren bat
ekar dezakeela aurreikusiz gero,
jakinarazi egin beharko da.

G UTXIENEZ ETA DERRIGORREZKO EDUKIA

PRODUKTUA. Produktuaren izen edo izendapena, ohiko erabilera edo merkaturan duena, ez bada berez ezagun-ezaguna (adibidez: aukia, mahaia, etab.).

Delako izendapena izan daiteke bai altzari-motari buruzkoa, zertarakoaren arabera (esertzeko altzariak, osagarriak eta apaingarriak, atsedenerakoak, etab.), bai denak batera saltzen diren pieza-multzoari buruzkoa (adibidez: jangela, logela, etab.).

Produktuak funtsezko ezaugarriren bat badu, adierazi egin beharko da etiketan izendapenarekin batera (adibidez: mahai pila-garria, besaulki bihurtgarria, etab.).

ENPRESA-IDENTIFIKAZIOA. Produktuaren arduraduna nor den jakiteko aukera ematen du.

Arduraduna fabrikatzailea, aldatzailea edo saltzailea bera izan daiteke. Derrigorrez, identifikatu dezaketen datuak adierazi beharko ditu, hau da, izena edo enpresa-izena eta helbidea.



Larru-manufaktura fabrikatzailearen Industri Erregistroko Zenbakia edo inportatzailearen Identifikazio Fiskalaren Kodea adierazi beharko da.

Osagaiak

Egiturak

Estaldurak

Betegarriak

Akaberak

Apaingarriak



OSAGAIAK.

Altzariaren atalen osagaiak nolakoak diren, altzariaren erabilera era batekoa edo beste-koa izango da, eta baita kalitatea eta segurtasuna ere. Osagaiei buruzko atala, beraz, garrantzitsuenetakoa da.

Horregatik, altzariaren zatien osagaiak, agerikoak zein ezkutukoak, argi eta garbi adierazi beharko dira.

Honako ezaugarri hauek izan behar dute bakoitzak bere aipamena etiketan:

- egiturak: egurrezkoa, metalezkoa, metakrilatoa, etab.
- estaldurak: txapa, melamina, etab.
- betegarriak: aparra, malgukiak, etab.
- akaberak: larrua, kotoia, etab.
- apaingarriak.

Ehunezko estaldura duten altzarien etiketetan, horren aipamena egingo da ehunezko materiala estalduraren pisua %80 baino gehiagokoa bada, bestela ez.

ERABILTZEKO BALDINTZAK. Instalazioak eta mantenimenduak eragina badute produktua behar bezala eta seguru erabiltzeko, instalazio-mantenimenduko aholku egokiak ere adierazi egin beharko dira.

Horrela, bada, hala dagokionean, adierazi egin beharko dira garraiatzeko eta muntatzeko baldintza zehatzak, kokagune eta erresistentziakoak eta erabilera, garbiketa eta mantenimendukoak ere. Hala berean, haurren segurtasunari buruzko berariazko arauen edota elikagaiekin kontaktua izateko posibilitatearen ingurukoak.

PREZIOA. Jendearentzako prezioa, zerga guztiak barne, eta hala dagokionean, baita garraio-sari, instalakuntza edota muntaiarengatik gehitu beharreko kostua ere. Informaziorako aukera saltokian, etiketan izan ordez.

Banaka sal daitezkeen piezek osatzen badute produktua, esate baterako logelako altzari-multzoa, pieza bakoitzak adierazita izan behar du bere prezioa.

Prezioa adierazteko ohiko modua JP siglak dira.



BERME- DOKUMENTUA

Altzaria erosi edo entregatzerakoan batera idatzizko berme-dokumentua ere eman behar zaio kontsumitzaileari. Dokumentuak gaztelaniaz idatzia behar du behinik behin, eta derrigorrez ondokoak adierazi beharko dira bertan:

- Bermeak bere baitan hartzen duen gauza.
- Bermatzailea, hau da, bermea ematen duen pertsona fisiko edo juridikoa.
- Bermearen titularra, hau da, altzaria eskuratzen duen kontsumitzailea.
- Bermeak bere baitan hartzen dituen eskubideak:
 - Jatorrizko akats edo okerrak, eta horien ondoriozko kalteak dohainik konponduak izatekoa.
 - Konponketak ez badu kontsumitzailea asebetetzen, bermearen titularrak altzaria ezaugarri bereko beste batengatik aldatzeko, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.
- Bermearen epea: sei hilabete gutxienez.

